

Krokodiloaren pikoak

Luma geldoan eta tinta ilaunarekin kontatzen dira ezinak, orrialde hauskorretan. Ez dakit zein usain zukeen desoseguak, malko-kresalarena ez balu. Erre egiten baitu ezintasunak, begiak idortu eta humoreak lurrundu.

Al Andalus delakotik bueltan, Angelek kontatu digu amonaren nobio bat hil ziotela gerran. Granadan. Mutu geratu ziren pianoak orduan. Ilargia eta eguzkia itsu. Itsasoa, gor.

Hodeiak eta gizonak, lurrak eta emakumeak, basoak eta haurrak inarrosi zituen biboterre ankerrak bere basurde-bideetan. Marruma dantzeta betean, espainiar guztien bozak hankapean hartu eta berunetan erre zituen Zeus txiki hark, Mikel Zarete behin deitu zionez Franco malapartatu hari (*Bizipenen bultzadak*).

Aitona biak kendu zizkidan niri apokalipsi hark. Joaquín kartzela-barku batean fusilatutik, Bilboko ur gorrietan. Jose gerra amaitu eta hamar urteren buruan, arma-fabrika batean, garaileentzako lan behartuetan jardun eta bertan pozoitu ondoren. Sufrea erretzen zien aitona faxistei, anhidrido sulfurikoa sortzeko, eta lehergaiak egiten zituzten haiek horrekin; hasieran Errepublikaren aurka, ondoren Estatu berriaren alde. Hamar urteko lan-zigorak eraman zigun aitaren aita. Hila-bete ero batek amarena.

Alargun-kume gara gu guztiok, lorerik gabe udaberriutako sagar, Jesus Etkezarragaren hitzetan esateko (*Olerki solteak*).

* * *

Frantziako hauteskundeak aipatu zizkigun Itxarok, Mexikotik bueltan. Arima heldu al zaizu handik, jada? Presidentzia-hautaketaren lehen itzulia joan zen apiril frantses urrun hartan, eta bigarrena hortxe dago, maiatzeko loraldian.

Espainian ere hauteskunde: udal-batzak, probintzietako juntak... Kanpai-



J. I. Basterrutxea

Borda

Erro

na-aurre beroa eskaini digute Bidasoaz hegoaldekoei zerrenden aferarekin. Asperturik nago batzuen eta besteen kontu zaharrekin, batzuen eta besteen irmotasun hutsalekin. Eskaintza berriren baten zain nago, nire botoa nahi badute.

Arestiko hori idazten ari nintzela, gogoratu dut Jose Saramagok antolatu zuen hauteskunde-anabasa ikaragarri eder hura, boto zurien kontuarekin (*Saiakera burnargitasunaren gainean*). Hauteskunde-sistema bera jarri zuen arrisku latzean bere asmakizunarekin. Sistemak aurreikusten du herritar batzuek boto zuria ematea, protesta edo desadostasun gisa, baita axolagabekeria moduan ere. Sistemak aurreikusten ez duena da boto-emaile guztiek, den-denek, boz zuria ematea.

Nork irabazi du orduan?

* * *

Martiztar herrenak deitu dit. Tipulazko orbita urrunean dabil hura. “Bai. Atxagak arrazoi”, esan dit. Haren hitzak babesten ditu hark ere, “krokodilo-jana bihurtzen baikara denak, gerra eta hauteskunde-garaietan”.

Epikteto zaharrak kontatu zuen ipuin bat baliatu nahi dut politikarien lana irudikatze. Zeren iruditu, iruditzen baitzait ezen Frantzia nahiz Espainian politikariak ari direla, oro har, kea saldu eta urrea kobratzen.

Epikteto hark esan zuenez, haur batek eskua sartu zuen behin aho estuko ontzi batean, hondoan zeuden pikuak eta intxaurrak hartzeko. Asko hartu zituen, gutziak eskatu zion beste. Baina, esku bete atera gura izan zuenean, ezin; ontziaren aho estuak ez baitzion uzten ukabil hain lodituari handik igarotzen.

Eskua nahi bazuen, pikuak utzi behar.

...edo boto-paperak.

Zerurik ez eta, infernuarekin moldatzen ikasi beharko dugu. ■

Epikteto zaharrak kontatu zuen ipuin bat baliatu
nahi dut politikarien lana irudikatze.
Zeren iruditu, iruditzen baitzait ezen
Frantzia nahiz Espainian
politikariak ari direla, oro har,
kea saldu eta urrea kobratzen